

**2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.**  
**Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.**

Testua. TEXTO.

**ANTSO III.A GARTZES NAGUSIA**

Antso III.a Gartzes Nagusia 992an jaio zen eta Oviedo-n hil 1035ko urriaren 18an. Ximeno dinastiaren Iruñeko VIII. erregea (1004 - 1035) eta Euskal Lurraldea batu zuen lehena, arabiar kronistek "Euskaldunen Jauna" deitua. Antso III.a, Gartzia II.a Santxezen eta Ximena Fernandezen semea zen.

Goiz Erdi Aroko erregerik interesgarrienetako bat da. Erregealdiaren hasieran tutore talde baten babesean gobernatu zuen. 1010ean ezkondu zen Muniarekin, Gaztelako Antso Gartzia kondearen alabarekin, eta Gaztelarekin harremanak sendotu zituen horrela; baina lehenago Aibarko Santxarekin seme bat izan zuen: Ramiro, Antsoren kutuna eta Aragoi gobernatu zuena. Antso III.a Gartzes Nagusia da "rex Dei gratia" tituluaren sortzailea eta bere erregealdia bi gertakari nagusiek nabarmentzen dute: bat, erresumaren barne-antolaketa, hiribildu askoren sorrera eta Jakue Bidearen ofizialtzea; eta bi, erresuma zabaltzen saiatzea.

Nafarroa 1017an hasi zen Gaztela eta Leon aldera zabaltzen, senide-loturen bidez zabaldu ere: bere koinatu Gartzia II.a Santxez Gaztelako kondearen babesle eta erregeorde bihurtu zen, koinatuak zazpi urterekin konderrria jarauntsi baitzuen.

1023. urtean Antso III.a Nagusiak Lapurdiko bizkonderrria sortu zuen bere lehengusu Lupo Antsorentzat eta berau Baionan finkatu zen. Zuberoa, Gillermo I.a Indartsua kondeordearen esku utzi zuen eta Baigorriko bizkonderrria sortu zuen (1033); ekintza horiek, sistema feudalaren barnean kokatu behar dira, baina, euskal batasunerako ondorio erabakigarriak ekarriko dituzte.

Penintsulako Leonen errebolta hasi zenean, Antso III.a Nagusiak erresuma armaz eskuratzen saiatu zen lehenengo; baina bestela obratuz gero; batetik, Leongo Alfontso V.a eta arreba Urrakaren ezkontza bideratu zuen; eta bestetik, Gaztelako Gartzia II.a Santxez, Infantea zen artean, Leongo Bermudo III.aren arreba Santxarekin ezkonarazi nahi izan zuen.

Antso III. Nagusiak oinordetza bere seme Gartzia III.a Santxez Naiarakoari utzi zion erreinu osoa, eta bere beste hiru semei lurralde banaren jaurgoa. Hau da, oraingo Nafarroa-Errioxa-Euskadi biltzen zituen lurren agintea Gartzia-ri zuzenean utzi zion. Gartzia-aren meneko izatekotan Gontzalori, Sobrabe-Ribagorzaren gobernu utzi zion eta Ramirori, Aragoikoa. Ordea, Antso III.a Nagusiak ez zuen inoiz "Gaztelako Konde" titulurik hartu nahi izan, beraz, Fernandok bere amarengandik jaso zuen Gaztela, bere osaba Gartzia II.a Santxez hil zenean (1029) eta haren emaztegaia Santxakin ezkondu zen (1032). Baina hala eta guztiz ere, testamentua ez zen orobat errespetatu. Gontzalo hil zenean Ramirok eskuratu zuen Sobrabe-Ribagorza eta Fernandok Leongo errege titulua eskuratzean Gaztela-Leongo errege titulua jarri zion bere buruari. Ondoren, Ramiro eta Fernando anai nagusiari oldartu eta anaiarteko guda tamalgarriak hasi ziren

GAIA/ASIGNATURA	<b>GIZARTE ZIENTZIAK</b>
MAILA/CURSO	<b>2 DBH</b>
IKASTETXEA/CENTRO	<b>DBHI ERRONKARI</b>
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENT O	<b>GEOGRAFIA ETA HISTORIA</b>
IRAKASLEA/PROFESOR / A	<b>ELISABETH ESKISABEL AZANZA</b>
<b>JATORRIA/FUENTE</b>	

EGILEA/AUTOR	HAINBAT EGILE
IZENBURUA/TÍTULO	“Antso IIIa Gartzes Nagusia”
ARGITALETXEA/EDITORIAL	<a href="http://www.puntubi.com/banatzaleak/1nagusihistoria.htm">www.puntubi.com/banatzaleak/1nagusihistoria.htm</a>
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	
ISBN	
<b>TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA</b>	
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso, internet web orria
FORMATOA/FORMATO	Digitala
MOTA/TIPO	Jarraia: azalpena
ERABILERA/USO	Ikasteko eta sakontzeko
<b>ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA</b>	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<p>Aurretiko ezagupenak aktibatu: Teoria azaldu, <i>Nafarroako Erreinu</i>ko gaia, lehen zatia.</p> <p style="text-align: center;"><u>NAFARROAKO ERREINUA ERDI AROAN</u></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. IRUÑEKO ERREINUAREN SORRERA</li> <li>2. IRUÑEAKO ERREINUTIK NAFARROAKO ERREINURA</li> <li>3. FRANTSES DINASTIAK. NAFARROAKO ERREINUAREN AMAIERA (1512)</li> <li>4. FORUAK ETA ERAKUNDEAK</li> <li>5. DONEJAKUE BIDEA ETA NAFARROAKO ARTEAN IZAN DUEN ERAGINA</li> <li>6. ARTE GOTIKOA NAFARROAN</li> </ol> <p>Urdinez dagoena azaldu ondoren , hau da, Nafarroako Erreinuaren garapen politikoa, eta liburuan agertzen diren ariketak egin ondoren , Antso IIIaren inguruko testua irakurri egingo dugu. Beraz, ikasleek aurretik gaiari buruzko informazioa izango dute.</p>
IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA	<p>Berrirakurri. Testua banatu eta guztien artean irakurriko dugu. Oso talde txikia da (6 ikasle) eta beraz bakoitzak zatitxo bat irakurriko du. Paragrafoka zatitu dago hasieran pertsonaiaren inguruko datuak aurkezten dira eta gero data zehatzagoak: datak eta izenak azpimarratzeko esanen diegu. Zati bakoitza irakurri eta honen inguruko azalpenak emango ditugu. Ikasleen dudak argitzen saiatuko gara, batik bat hiztegi kontuak (bizkonderria, jaurgoa...)</p>
IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA	<p>Lana binaka egingo dute eta horretarako testuaren gaineko hainbat galdera banatuko zaizkie. Galderak mota ezberdinekoak dira, ireki eta itxiak eta bakoitzak helburu zehatza izango du. Ikasleak momento honetan bakarrik egingo dute lan, irakasleak ez die</p>

		<b>lagunduko. Dudak aurretik galdetu behar ziren. Helburua, bere kabuz lan egitea litzateke.</b>
<b>JARDUERAK/PROCESOS LECTORES</b>		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	<b>Zein medeetan jaio eta hil zen Antso IIIa Nagusia?</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>X-XI mende artean (992-1035)</i>
	2.	<b>Arabiar kronisten arabera. Antso III... a) “Rex Dei”a zen b) “Euskaldunen Jauna” da. c) Arabiarren etsaia da</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>b)</i>
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	<b>Zure ustez zertarako idatzi da testu hau?</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>Antso Nagusiaren biografia ezagutzeko.</i>
	2.	<b>Zein izenburu aukeratuko zenuke  a) Antso III Nagusia, Euskaldunen Jauna b) Nafarroako erregeak c) Antso III, Aragoi eta Gaztelako errege.</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>a)</i>
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	<b>Testuan duzun informazioarekin Antso IIIaren zuhaitz genealogikoa egin ezazu.</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>Hau bigarren jarduerako (ulermen orokorra) galdera izan liteke</i>

	2.	<p><b>Antso IIIaren garaian Nafarroak jasan zuen garapena kronologikoki ordenatu:</b></p> <p>a) Erreinuaren banaketa bere semeen artean  b) Nafarroa Gaztela eta Leonera hedapena  c) Iparralderako garapena, Lapurdiko bizkonderria sortu.</p>
	Erantzuna Respuesta	<i>b), c), a)</i>
4. Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	<b>Zein dira testuan lantzen diren datarik nagusienak?</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>Antso Nagusiaren bizitzan egon zirenak, XI. mende hasierakoak.</i>
	2.	<b>Zergatik esaten da “testamentua ez zen orobat errespetatu”?</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>Semeen artean ondorengotza arazoak egon zirelako. Bakoitzari lur ezberdinak banatu zizkion eta gero arazoak egon ziren.</i>
5. Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	<b>Testua zeren arabera antolatu du idazleak?</b>
	Erantzuna Respuesta	<i>Denboraren arabera</i>
	2.	<b>Nori zuzentzen zaio testu hau?</b> a) Publiko zabal bati. b) Historian arituak direnei. c) Lehen Hezkuntzako ikasleei
	Erantzuna Respuesta	<i>a)</i>
<b>PRAKTIKAN JARRI / PUESTA EN PRÁCTICA OHARRAK / OBSERVACIONES</b>		
1.		

Erantzuna Respuesta

2.

Erantzuna Respuesta